

HIZKUNTZEN KUDEAKETARI LOTUTAKO PRAKTIKA ONAK

JASOTZEKO FITXA

ERAKUNDEAREN DATUAK (eskutzen diren 5 eremuak bete mesedez)

Datu hauek eta praktika onen fitxa betetzerakoan, baimena ematen duzu goian agertzen diren eremuak eta betetako praktika onen fitxa Euskaliteko webgunean argitaratzera, modu irekian zabaldu daitezzen.

1. Erakundearen izena:	FAGOR KOOP.E
2. Sektorea:	Industria
3. Langile kopurua:	45 emakume/55 gizona
4. Webgunea:	www.fagor.eus
5. Erakundearen jardueraren deskribapena: (produktu eta zerbitzu nagusiak, merkaturak, bezero motak...):	<p>Fagor Taldea osatzen dugun kooperatibak gara: Copreci, Galbaian, Fagor Arrasate, Fagor Automation, Fagor Ederlan, Fagor Electrónica, Fagor Industrial eta Mondragon Assembly. Soluzio teknologiko aurreratuak eskaintzen dizkiegu mundu osoko bezeroei.</p> <p>Hainbat arlo lantzen dugu: etxetresna elektrikoetarako osagaiak, produktu metaliko lauak prozesatzeko ingeniaritza, makina erremintak automatizatzeko sistemak, automozio osagaiak, fabrikazio elektronikoko zerbitzuak, ostalaritza, garbitegi eta hotz komertzialeko ekipiak eta muntaia prozesuen automatizazioa.</p> <p>Taldearen egitura eta organoen kudeaketaz arduratzen diren zerbitzu zentralak kokatzen dira Fagor S.Coop.en. Talde kudeaketaz arduratzen dira Idazkaritza Orokorra, Eraldaketa Soziala, Gestio Soziala eta Administrazio departamentua eta Taldeko kooperatibei nagusiki, baina baita taldez kanpoko enpresei ere zerbitzua eskaintzen dieten departamentuak dira Antolaketa eta Sistemak, Dokumentazioa eta Garraioa.</p>

Harremanetarako datuak

Eremu hauek hautazkoak dira. Datuak betetzen badituzu, webgunean azalduko dira bere horretan. Horrela, zure praktika interesgarria suertatu zaion erakundea zurekin harremanetan jarri ahal izango da:




Solaskidearen izen-abizenak:	Leire Okarantza Ibabe
Helbide elektronikoa:	lokarantza@fagor.eus
Telefonoa:	943 03 40 26

<p>1. Praktika onaren titulua:</p>	<p>EUSKARARI FUNTZIO PROPIOAK EMATEKO LANKETA FAGORREKO BATZORDEETAN</p>
<p>2. Praktika onaren azalpena:</p> <p>Zer da? Zertan datza?</p> <p>Nondik dator?</p> <p>Zeintzuk dira onurak, lortu diren emaitzak?</p>	<p>Fagor Taldeak estrategikotzat jotzen du euskararen normalizazioa. Ondokoa du onartua: “Fagor Taldeak eta berau osatzen duten kooperatibek euskaraz lan egiteko aukera bermatuko dute. Horretarako, beharrezkoak diren baliabideak ziurtatuko dira eta euskararen erabilera bultzatuko da, modu sistematizatu eta integratzaile baten bidez, barne harremanetan, zein Euskal Herrira zuzendutakoetan, erakundeko pertsonen motibazioan eta ezagutzan eraginez”.</p> <p>Euskararen iraunkortasuna eta garapena helburu, hizkuntzen kudeaketa zehatza egiten ari da, besteak beste, euskarari komunikaziorako funtzio zehatzak emanez, esaterako, Taldearen eta kooperatiben arteko nahiz kooperatiben eta langileen arteko komunikazioak euskaraz izatea ahalbideratuz, bi kanalen lanketaren bitartez.</p> <p>Fagor Taldea eta berau osatzen duten kooperatibak pertsonen arteko harreman orekatuagoak bultzatzeko egiten ari garen lanketen erakusle dira euskararen normalizazioaren baitan egindakoak. Harreman orekatuagoak lortzeko zeregin horretan, Euskara Batzordeez gain, eraldaketa sozialerako lantaldeak ditugu lanean eta, laster, lantalde berriak sortuko dira. Arlo sozialean lantzen ditugun lan ildoetan garrantzitsua izango da euskarari funtzio propioak esleitzea. Hala, Fagorreko Lehendakarien Batzordeak ondorengo ERABAKIA hartu zuen:</p> <p><i>“Gai sozialak lantzen dituzten taldeetako lan eta komunikazio hizkuntza nagusia euskara izatea eta ondorioz, Gizarte Eraldaketa Batzordeak eta Genero Berdintasuna lantzeko eratzten diren Batzordeak euskara izatea lan eta komunikazio hizkuntza, helburu hori betetzeko beharko diren bitartekoak jarriz.</i></p> <p><i>Izaera sozialeko proiektuetan Funtzio Propioen dinamika abiatzeko Taldeko Gizarte Eraldaketa Batzordea eta Genero Berdintasuna lantzeko Talde mailan sortu daitekeen lantaldea identifikatzen dira.”</i></p> <p>Iaz, Eraldaketa Batzordeak bere buruari begirako ariketa egin zuen, eta barne nahiz kanpo komunikazioetako hizkuntza nagusia euskara izan dadin jarraitu beharreko irizpideak zehaztu zituen.</p> <p>Aurrerantzean ere, asmoa da hasierako fasean dauden lantaldeek hausnarketa hau egitea eta funtzio propioei begirako ariketak Fagor Taldean sistemazitzea.</p>

PRAKTIKA ONAREN INGURUKO DOKUMENTAZIOA, IRUDIAK, GRAFIKAK...

(Hemen itsatsi tresna/dinamika/praktikaren irudiak, dokumentuak, grafikak, eta abar.)

1. ERALDAKETA BATZORDEAK EGINDAKO ARIKETAREN ATAL BATZUK

<p>“Fagor Taldeak eta berau osatzen duten kooperatibek euskaraz lan egiteko aukera bermatuko dute.”</p> <p>2017-2020, 4 ildo estrategiko:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1.- Ezagutza bermatu. 2.- Komunikazioa landu. 3.- Arnasguneak babestu eta garatu. 4.- Funtzio propioak: bi kanalen lanketa eta lanketa sozialak 	<p>Eraldaketa Batzordea eta hizkuntzen kudeaketa</p> <h3>Helburuak</h3> <ol style="list-style-type: none"> 1.- Lan Talde honek bere buruari begirako mekanismoak abian jartzea egoera ezberdinetan hizkuntzen kudeaketari dagokionez eman zaion funtzioa betetzeko. 2.- Funtzio propioei begirako ariketak Taldean <u>sistemazizatzea</u>, batean eta bestean egiteko.
<p>Lan talde honek euskaraz funtzionatzeko, ulermena bermatua egon behar da eta gainera dinamizatzaileak euskaraz egiteko jarrera eta gaitasuna izan behar du.</p> <p>2. Edozein arrazoi tarteko, hori ez da bermatzen. Ze neurri hartu behar ditugu batzorde honek bere jardunean euskara lehenesten jarraitzeko?</p> 	<p>Eraldaketa Batzordearen kanpo komunikazioak</p> <p>Zein izan beharko litzateke kasuan kasuko hizkuntzen kudeaketa euskara komunikaziorako hizkuntza nagusia izateko? Euskaraz funtzionatzen dutenei, ulermena bermatua dutenei, ulermena bermatuta ez dutenei begirakoa.</p> 

2. ERALDAKETA BATZORDEAK HARTUTAKO ERABAKIA


ERABAKIA

1.- *Taldeko Eraldaketa Batzordeko hizkuntza irizpideak zehazten dituen politikak, zehaztutako terminoetan jasotzea eta onartzea.*

2.- *Kooperatibetako Kontseilu Errektoreei eta Taldeko Lehendakarien Batzordeari onartutako politika zehazten berri ematea.*

3.- *Urtean behin, Taldeko Eraldaketa Batzordeko arduradunaren eskutik, zehaztutako politiken betetze mailari jarraipena egitea euskara koordinatzailearekin elkarlanean horretarako berariaz sortutako galdetegia erabiliz.*

Ikusi Eranskina_ Hizkuntza irizpideen jarraipenerako GALDETEGIA.


Eraldaketa_Batzordea_Galdetegia.xlsx

KUDEAKETA AURRERATUA
EUSKALIT
GESTIÓN AVANZADA



KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA